

Aierdi Berri



IRASTORTZA ARMENDARIZ familia

AIERDI BERRI Aiestaran Erreka auzoko baserria da. Bere inguruko baso eta zelaien artean dugu Txomillo, Errekabeltz, Zuazola, Zabaltoki, Añoa, Etxeazpi. Aierdiko izengoitia zen Trumoiak.

Baserritik errepideraino aldapa dago. Oinez herriko plazatik ordu erdira dago. 1956an egin zen auzoko bidea, eta etxerainokoa 1960an. Etxejabe dira 1920tik aurrera eta konponketak derrigorrean egin behar izan ziren baserria erre zenean. Antza denez, bertako Asintxi ezkontzeko festa ospatzeko etxafueroa bota, eta non sartuko eta etxeko ganbaran. Ganbara maxalastoz betea zegoen (artoa, buru gabe) eta sua hartu zuen denak eta baserria erre. Harrez gero bi etxe dira Aierdin, eta bertako seme Batixte, zortziki jaio omen zen susto horrekin.

1915ean ezkondu ziren Joan Joxe Irastortza eta Joxpamari Etxabe, *Konporta* baserrikoa.

1953an ezkondu ziren, berriz, Batixte Irastortza, bertako semea eta Roxita Armendariz, *Ernaitza* baserriko alaba. Aierdin bizi ziren artean aita-amak, bi osaba-izeba eta bi anaia-arreba.

Bost seme-alaba izan zituzten: Mari Karmen, Jose Inazio, Kepa, Arantxa eta Belen.

Baserrian baziren behiak, idiak (sei- zazpi) eta Ordiziako ferian saltzen zuten babarruna, artoa eta garia. Gazta eta esnea ere saltzen zuten. Etxerako dena baserritik ateratzen zuten.





IRASTORTZA ETXABE familia

Atzean, ezkeretik eskubira: Joan Joxe Irastortza (aita), Joan Bautista, Pedro (Uruguaira joana), Joxe Mari, Felix Sarasua (Asintxiren senarra). Aurrean, ezkeretik eskubira: Joxpamari Etxabe (ama), Martixio (aitona), Fermina (amona, Errekaldekoa), Asintxi. Umeak Batixte, Joxe Martin eta Maritxu.

Pasadizoak

Usakumea non?

Ordiziako feria garantzi handikoa zen baserritarrentzat eta, maiz joaten ziren jeneroa saltzera. Halaxe, joan da behin Joxpamari. Horretarako, seme Batixtek zortzi usakume utziko dizkiola karreran xexto azpian. Saltzera joan denean erosleak zazpi kontatzen zituela eta Joxpamarik zortzi eraman zituela, eta izan dute izugarriko sestra edo eztabaida, eta etxera etorri denean han omen zegoen usakumea karreran, xextotik alde eginda.


Salbokonduktua

Baziren kontu garratzagoak ere. Joxpamariren seme Joxe Martin hemezortzi urterekin soldadu joan eta 21 urterekin hil zuten gerran. Frente hartan baziren atzeagotik zihoazen beste zaldibitar batzuk eta Zaldibiko parrokiara ere abisatu zuten nola hil zen Joxe Martin. Baina parrokiatik ez zioten zuzenean abisua eman Joxpamariri, Konporta bidez baizik. Hurrengo egunean amona joan da parrokiara eta esan ditu hustu arteko guztiak. Eta horrela, barrenak hustuta, etxeratu da. Baina hurrengo astean izan zuen berriz erantzuna. Garai hartan baimena behar izaten zen Ordiziako ferira joateko, salbokonduktua, eta ez zioten eman. Baina hala ere joan egiten Joxpamari, eta baita multa jarri ere joateagatik.

Txorixoekin liluratuta

Azken gerra-garaian ere izan ziren gora-behera gehiago. Gerra-ostean Guardia Zibilak etxeetara joaten omen ziren, miaketa eta erregistroak egitera. Egun batean agertu dira Aierdira eta sartu dira sukaldera eta Joxpamarik omen zeuzkan txorixoak sukaldetan zintzilikatuta sekatzan jarrita, eta guardia zibil hauek liluratuta geratu izango ziren. Orduan Joxpamarik hamaiketako eman omen zien eta entretenitu omen zituen ederki sukaldetan eta bitartean aita eta semea, jo eta ke lanean garia ganbaratik basora eramaten gordetzeko.

Informazio emaila: Arantxa Irastortza



IRASTORTZA ARMENDARIZ familia

Baseri aurrean. 1959
Roxita Armendariz (ama), Kepa (besoetan), Mari Karmen, Jose Inazio, Batixte Irastortza (aita).



Baseri aurrean. 1959
Anttoni Eskisabel, Mari Mertxe (besoetan), Roxita Armendariz, Kepa Irastortza (besoetan).